

# Euskaraldian parte hartu nahi dut



## Zein rol hartuko duzu Euskaraldian?



### Ahobizi

Euskaraz ulertzen duten guztiakin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut. Batzuetan zaila izan arren, elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eusten diot kideek ulertzen dutenean. Gakoa ahal den guztietan euskaraz egitea da.



### Belarriprest

Nire gaitasun eta aukeren arabera erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiakin, baina euskara dakitenek niri uneoro euskaraz hitz egitea nahi dut; eta horixe eskatzen diet modu esplizituan.

**Gogoratu! Rola aukeratzean, gakoa jokaeran dago, ez gaitasunean.**

**IZENA EMATEKO:** <https://izenematea.euskaraldia.eus/>

edo eskaneatu QR kodea

